



SEXTING IRUZURRA

Zer da?


Iruzurrezko mezu elektronikoen bitartez egiten den iruzurra da eta hartzaileari estortsio egitea du helburu, eduki sexualeko ustezko bideo batekin.

Sareko delitugileak mehatxu egiten du biktimaren kontaktuei bideoa 48 ordutan bidaltzearekin, biktimak Bitcoin kopuru jakin baten ordainketa egin ezean.




SEXTING IRUZURRA

Zer egin?



Horrelako mezu bat jaso baduzu, ➔ **EZ KASURIK EGIN.** Iruzur-saiakera bat da, eta zure ekipoa ez da infektatu. Ez dituzte zure kontaktuak lortu eta ez dago inolako bideorik.



Xantaia onartu baduzu eta Bitcoin ordainketa egin baduzu, ➔ **JARRI SALAKETA** Bildu froga guztiak (pantaila-irudiak, mezu elektronikoak, mezuak, etab.) eta jo Ertzaintzara.

Nola ekidin?



Ez ireki erabiltzaile ezezagunen mezurik edo eskatu ez duzunik, **ezabatu zuzenean.**



Ez inoiz erantzun mezu horiei, eta ez informazio pertsonalik bidali.



Mantendu beti sistema operatiboa eta antibirusa **eguneratuta.**



Erabili **pasahitz desberdinak** zerbitzu desberdinetarako.



Pasahitzen kudeatzaile batek erraztuko dizu lan hori.



OSO GARRANTZITSUA: **Ez ordaindu inoiz** ezer estortsioa egiten dizunari.